


AURKIBIDEA

1. Eranskina: Bi ipuinen azalak	30
1.1. <i>Usoa, hegan etorritako neskatoa</i> ipuinaren azala	30
1.2. <i>Hau da hau nahaste borrastea</i> ipuinaren azala	30
2. Eranskina: <i>Hau da hau nahaste borrastea</i> ipuinean dauden familientzako orientabideak	31
3. Eranskina: Esku-hartzearen alderdi orokorrak	32
4. Eranskina: Esku-hartzearen garapena	33
5. Eranskina: Haurren usteak ezagutzeko galderak	37
6. Eranskina: Proposamen didaktikoaren hirugarren fasea	38
6.1. Pertsonaiak	38
6.2. Ikasleei erakutsitako harrerako-familia ereduak	39
6.3. Ikasleek eraikitako familia ereduak	40
6.3.1. Lehenengo ikasleak eraikitako familiak	40
6.3.2. Bigarren ikasleak eraikitako familiak	40
6.3.3. Hirugarren ikasleak eraikitako familia	41
6.3.4. Laugarren ikasleak eraikitako familia	41
7. Eranskina: <i>Usoa, hegan etorritakoa neskatoa</i> ipuina Haur Hezkuntzara eramanda	42
8. Eranskina: Ipuinaren inguruan ikasleei egindako galderak	58
9. Eranskina: Esku-hartze orokorra ebaluatzeko errubrika	59
10. Eranskina: Esku-hartzearen hirugarren fasea ebaluatzeko errubrika	60


ERANSKINAK

1. Eranskina: Bi ipuinen azalak







1.1. *Usoa, hegan etorritako neskatoa* ipuinaren azala



1.2. *Hau da hau nahaste borratea* ipuinaren azala



2. Eranskina: *Hau da hau nahaste berrastea ipuinean dauden familientzako orientabideak*



3. Eranskina: Esku-hartzearen alderdi orokorrak

ESKU-HARTZEA	
Esku-hartzearen izenburua: “Harerra-familia ereduaz ezagutzen”	
Data: 2023/02/28-2023/03/03	
Ikasturtea: 2023/24	Taldea: 3 urteko gela
Helburuak:	
<ul style="list-style-type: none"> • Ingurune fisiko eta soziala behatu eta aztertzea eta hura ezagutzeko interesa adieraztea, haren partaide izateko sena lantzeko eta ingurune horretan nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz jarduteko. 	
Edukiak:	
<ul style="list-style-type: none"> • Hastapenetako zer gizarte taldeetako partaide den jakitea eta horiek bereiztea. Familia-ereduak, senidetasun-harremanak... • Informazioa balioestea eta adieraztea (arrazoiak ematea, justifikatzea, etab.). • Hurbileko gizarte-ingurunearen ezaugarriak eta funtzioak behatzea. • Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea. 	
Ebaluazio-irizpideak:	
<ul style="list-style-type: none"> • Jolasetan eta taldearen proposamenetan gogoz parte hartzen eta laguntzen du. • Gizarte-ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziazko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta. • Kide den gizarte taldeen ezaugarriak ezagutzen ditu. • Gogoz entzuten ahozko testu askotarikoak (mezuak, kontakizunak, literatura-ekoizpenak, deskribapenak, azalpenak, informazioak, etab.), eta ulertu egiten ditu. • Ikasgelan irakurtzeko eta idazteko egiten diren proposamenetan parte hartzen du eta horiekiko interesa adierazten du. 	

4. Eranskina: Esku-hartzearen garapena

<p>1.PRESTAKETA-ALDIA</p>	<p>Proposamenarekin hasi aurretik, ezarritako helburura iristeko alderdi orokorrak zehaztu ziren (ikus 3.eranskina), honekin batera, jarduerak eta atal horiek aurrera eramateko materiala pentsatu ziren. Modu honetan, ikasleen gaitasun eta beharretara egokitutako zentzuzko ekintzak diseinatu eta horien iraupena aurreikusi ahal izan ziren. Prozesuaren emaitzak ebaluatzeko errubrika ere prestaketa-aldi honetan sortu zen.</p> <p>Aplikazio didaktiko honetan erabilitako materialak ondorengoak izan dira: hirugarren faserako hamar pertsonairen hamar marrazki (gizon bat, emakume bat, haur bat eta haurtxo bat, zuriak nahiz beltzaranak), hiru harrera-familia eredu (familia nuklear bat eta familia homoparental bi, lehenengoa bi amaz osatua eta bigarrena bi aitaz osatua) irudikatzen zituzten hiru marrazki, eta azkenik, ipuina.</p>
<p>2.TESTUINGURAKETA (10 minutu)</p>	<p>Haurrak gaira hurbiltzeko hasierako metakognizio bat eraiki zen. Hasierako fase honetan, ikasleek jorratu beharreko gaiaren inguruan dituzten usteak ezagutzeko galdera batzuk (ikus 5. eranskina) planteatu nizkien, bakoitzak bere iritzia askatasun osoz plazaratzeko konfiantza giroa sortzen saiatzearekin batera. Galderek bide eman zioten elkarrizketa kontakizun batetik abiatua izan zen, hau da, solasaldira iristeko, nik neuk familiei buruzko kontakizun labur bat kontatu nien eta hori izan zen ikasleak ideia desberdinak partekatzera eraman zituena. Kontakizuna, umeen arreta erakartzeko zein elkarrizketari sarrera emateko funtsezko gakoa izan zen.</p>
	<p>Esku-hartzearen hirugarren faseak bi zati izan zituen; pertsonaia desberdinekin (ikus 6.1.eranskina) familia bat osatzea eta</p>

<p>3.FAMILIAK ERAIKITZEN (7-10 minutu haur bakoitzeko)</p>	<p>harrera-familia eredu berriak (ikus 6.2.eranskina) errepresentatzen zituzten hiru irudi sailkatzea.</p> <p>Harrera-familia ereduak irudiei dagokienez, familia homoparentalen kasuan, bi emakumek edo bi gizonak umeak izan dezaketen galdera erabili nuen ikasle guztiekin. Bestalde, familia nuklearrari erreferentzia eginez, gurasoak beltzaranak izanik, haurra nolatan izan zitekeen zuria galdera erabili nuen. Hau honela, denetariko konbinazio eta erantzunekin egin genuen topo. Jarraian, haur bakoitzak eraikitako familia ereduak eta emandako argudioak adieraziko dira.</p>
<p>LEHENENGO IKASLEA</p>	<p>Lehenengo umeak bi familia (ikus 6.3.1.eranskina) eraiki zituen, alde batetik, sei kidekoa eta, beste alde batetik, lau kidekoa. Bi kasuetan familia nuklearrak sortu zituen, baina lehenengo taldean lau haur jarri zituen eta bigarrenean, aldiz, bi. Sortu zituen bi familietan, pertsonaia beltzaranen eta zurien arteko konbinazioak egin zituen, hau da, ez zituen pertsonaia kolorearen arabera sailkatu. Egindakoaren inguruan galdetuz, aukeratutako pertsonaia horiek gustoko zituela erantzun zuen, horregatik egin zuela horiekin familia.</p> <p>Harrerako familia ereduak irudiei dagokienez, hirurak klasifikatu zituen familia gisa, irudiko familiak zoriotsu ageri zirela argudiatuz.</p>
<p>BIGARREN IKASLEA</p>	<p>Bigarren haurrak, bost familia monoparental (ikus 6.3.2.eranskina) sortu zituen eta ume guztiek guraso bat izatearen garrantzia azpimarratu zuen. Hezigai honek kolorearen arabera eratu zituen lau bikote, baina kasu batean, mutiko beltzarana (berak elementuaren tamaina dela eta, aita moduan izendatu zuena) haurtxo zuriarekin lotu zuen. Irudien sailkapenari dagokionez, marrazki guztiak klasifikatu zituen familia gisa. Familia homoparentalen kasuan, seme-alabak izateagatik har</p>

	<p>zitezkeela familiatzat baieztatu zuen. Familia nuklearraren irudiari erreferentzia eginez, hura ere familia bat zela esan zuen. Gurasoak beltzaranak izanik haurra nolatan izan zitekeen zuria galdetzean, “batzuetan horrelakoak garelako” azaldu zidan.</p>
<p>HIRUGARREN IKASLEA</p>	<p>Hezigai honek familia bakar bat sortzea erabaki zuen, horretarako, pertsonaia guztiak erabiliz (ikus 6.3.3.eranskina). Pertsonaia guztiak erabiltzearen zergatia galdetzean, eraikitako familia berea bezalakoa zela erantzun zidan, hots; handia. Ariketa hau egiterako orduan ikasle honek erakutsitako kontzentrazio-mailarekin arrituta geratu nintzen, pertsonaiak eskuan hartu eta arreta handiarekin aztertu zituen. Irudiak erakusterakoan, hiru marrazkietan haurtxo bat ageri zela esan zidan, horregatik zirela familia. Gurasoak beltzaranak izanik haurra nolatan izan zitekeen zuria galdetzean, “gurasoak eta umea ez dira berdinak, baina beraien umea da” erantzun zidan.</p>
<p>LAUGARREN IKASLEA</p>	<p>Azken umeak, bere familian oinarritutako familia bat (ikus 6.3.4.eranskina) eraiki zuen, honetarako aita bat, ama bat eta neskato bat hautatu zituen. Era berean, pertsonaia bakoitzari izena jarri zion, bere gurasoen izena aita eta amari eta, bere izena, neskatoari. Aukeratutako pertsonaiak bera, bere aita eta bere ama zirela justifikatzeko, pertsonaia bakoitzaren arropa eta elementuetan zentratu zen, praktetan, alkandoran eta lepokoan, besteak beste.</p> <p>Irudiak aztertzean, hauetan ageri ziren pertsonaiak, objektuak eta koloreak izendatzen hasi zen ikaslea. Irudiek osatzen zutena baino gehiago, haietan ikusi zitekeenak deitzen zion arreta. Galderen erantzunei dagokienez, bere iritziz, hirurek betetzen zuten familia batek izan beharreko baldintzak: haur bat izatea .</p>

<p>4.IPUINA</p> <p>(15-20 minutu, ostean egindako solasaldia barne)</p>	<p>Lehenengo esku-hartze honen laugarren fasean, aste horretan zehar jorratutakoa biltzen zuen <i>Usoa, hegan etorritako neskatoa</i> (Erein, 2008) ipuina ikusi eta ezagutu genuen. Egunero bezala, ikasle-taldearekin goizeroko errutina bukatu ondoren egin genuen irakurketa, nahiz eta alde zuzenetik, egun horretan ipuin berezi bat izango genuela azaldu nien. Kontakizun guztian zehar, hurrek arreta handiz entzun zuten istorioa, giro lasaia nabari zen. Irudiak bisualki erakargarriak izateak, ikasleen interesa mantentzeko gutxienezko ahalegina eskatzen zuten eta kontakizuna ulergarri ere egiten zuten. Bukatzean, zazpi izan ziren planteatutako galderak (ikus 8.eranskina), ikasle bakoitzak, ipuinak barne hartzen duen tematika zentrala zein modutan ulertu eta bizi zuten ikusarazi zidaten galderak.</p>
<p>5.EBALUAZIOA</p>	<p>Behin aplikazio didaktikoa gauzatuta, bildutako emaitzetatik ondorioak atera ahal izateko errubrikak bete ziren. Errubrika horiek, Haur Hezkuntzako 237/2015 Curriculum Dekretuko zenbait irizpide kontuan izanda sortu ziren. Txosten honek, ikasleen aurre ezagutzak eta prozesuan zehar ikasitakoa kontrastatzeko eta esku-hartzearen ahuleziak zein indarguneak identifikatzeko aukera eman dit. Zehazki bi izan ziren sortutako errubrikak, lehenengoa, esku- hartze orokorra ebaluatzeko irizpideekin egina (ikus 9.eranskina) eta, bigarrena, soilik hirugarren jardueran parte hartu zuten ikasleen jarduna ebaluatzeko errubrika (ikus 10.eranskina).</p>

5. Eranskina: Haurren usteak ezagutzeko galderak


GALDERAK	ERANTZUNAK	
1. Zer da familia bat?		
2. Zer egiten du familia batek?		
3. Zeinek edo zeintzuk osatzen dute zure familia?		
4. Gure etxe berean bizi ez diren pertsonak izan daitezke gure familiakoak?	BAI	EZ
5. Amama eta aitona familia dira?	BAI	EZ
6. Animaliak familia dira?	BAI	EZ
7. Familia bi izan genitzake?	BAI	EZ

6. Eranskina: Proposamen didaktikoaren hirugarren fasea

6.1. Pertsonaiak



6.2. Ikasleei erakutsitako harrerako-familia ereduak



6.3. Ikasleek eraikitako familia ereduak

6.3.1. Lehenengo ikasleak eraikitako familiak



6.3.2. Bigarren ikasleak eraikitako familiak



6.3.3. Hirugarren ikasleak eraikitako familia



6.3.4. Laugarren ikasleak eraikitako familia



7. Eranskina: *Usoa, hegan etorritakoa neskatoa* ipuina Haur Hezkuntzara eramanda





BAZEN BEHIN, KUKUA IZENEKO TXORITXO BAT.

KUKUA OSO POZIK ZEGOEN, 3 TXORI KUME IZAN BERRI ZITUELAKO.

HURRENGO EGUNEAN, BIDAIA OSO LUZEA EGIN BEHAR ZUEN KUKUAK BERE KUMETXOEKIN. AFRIKATIK EUSKAL HERRIRAINO JOAN BEHAR ZIREN. EUSKAL HERRIRA IRITSITAKOAN BESTE TXORITXO BATZUEKIN UTZIKO ZITUEN BERE KUMETXOAK.



Hemen Afrika ikus dezakegu



Eta hemen Euskal Herria



KUKUAK BAZUEN EUSKAL HERRIAN LAGUN HANDI BAT ERE: USOA.

USOA AFRIKAN JAIO ZEN, EUSKAL HERRITIK OSO OSO URRUTI DAGOEN HERRIALDE BATEAN. USOA BERE AMA ETA BERE AITAREKIN BIZI ZEN POZIK.



BAINA... EGUN BATEAN, USOAREN HERRIRA GAIZKILE BATZUK JOAN ZIREN ETA GERRA BORTITZ BAT HASI ZUTEN. GERRA HANDIA HASI ZEN.

GERRAREKIN BATERA, GAUZA ASKO DESAGERTZEN HASI ZIREN...




LEHENENGO ZUHAITZAK DESAGERTU ZIREN...



...GERO, ETXEAK...



...GERO, AITA...




...ETA, AZKENIK, AMA.



GERRAK EZ ZUEN EZER UTZI, EZTA INOR ERE.

ORDUAN, USOA, AFRIKA UTZI ETA EUSKAL HERRIRA ETORRI ZEN,
BERE FAMILIA ETA ETXE BERRIA EZAGUTZERA.



ORAIN USOA, BILBON BIZI DA. BERE AITA PERU DA. AMA OIHANE. ETA NEBA TXIKIA UNAI. TXAKUR BAT ERE BADAUKATE, KAI.



USOA EGUNERO JOATEN DA IKASTOLARA POZ-POZIK. IKASTOLAN GAUZA ASKO EGITEN DITU : LAGUNEKIN JOLASTU, MARGOZTU, KOLOREAK ETA TAMAINAK IKASI...



PLAN ASKO ERE EGITEN DITU. MENDIRA JOATEN DA, HONDARTZARA JOATEN DA,
LEKU DESBERDINETARA BIDAIATZEN DU...



BAINA USOA ASKO GOGORATZEN DA AFRIKAKO BERE FAMILIAZ. AMATXU OIHANEK AFRIKAREN INGURUAN HITZ EGITEN DIO USOARI ETA AFRIKATIK BILBORA EKARRITAKO GUTUNA ERE ASKOTAN IRAKURTZEN DIO. GUTUN HORI AFRIKAKO AMAK IDATZI ZUEN.



USOAK BI FAMILIA DITU ORDUAN. AFRIKAKO FAMILIA ETA BILBOKO FAMILIA. ASKO MAITE DITU BI FAMILIAK USOAK.

8. Eranskina: Ipuinaren inguruan ikasleei egindako galderak

GALDERAK
1. Zein da Usoa?
2. Zergatik etorri zen Afrikatik Euskal Herrira (Bilbora)?
3. Bilbon norekin bizi da?
4. Usoa nola sentitzen dela uste duzue?
5. Zenbat familia ditu Usoak? Zein edo zeintzuk?

9. Eranskina: Esku-hartze orokorra ebaluatzeko errubrika

IRIZPIDEAK	ERANTZUNAK			
FAMILIA DEFINITZEKO GAI DIRA	BAI		EZ	
FAMILIA EREDU DESBERDINAK EZAGUTZEN DITUZTE	ESKU-HARTZEAREN AURRETIK		ESKU-HARTZEAREN OSTEAN	
	BAI	EZ	BAI	EZ
GALDEREN ERANTZUNAK JUSTIFIKATZEKO GAI DIRA	BAI		EZ	
IPUINA KONTATU OSTEAN	IPUINEKO IDEIA NAGUSIAK LABURBILTZEKO GAI IZAN DIRA			
	BAI		EZ	
	USOA BIGARREN FAMILIA BATEKO KIDE IZATERA IGAROTZEAREN ARRAZOIA ZEIN DEN IDENTIKATU DUTE			
	BAI		EZ	
	USOAREN BI FAMILIAK IZENDATU DITUZTE			
	BAI		EZ	

10. Eranskina: Esku-hartzearen hirugarren fasea ebaluatzeko errubrika

IRIZPIDEAK	ERANTZUNAK	
1.SORTUTAKO FAMILIEN ZERGATIA AZALTZEKO GAI DA ZENTZUZKO MODU BATEAN ARGUDIATUZ 2.ERAKUTSITAKO HARRERA-FAMILIAKO IRUDIAK KLASIFIKATZEN DITU ETA ESANDAKOA ARRAZOITZEN DU	LEHENENGO IKASLEA	BAI
		EZ
	BIGARREN IKASLEA	BAI
		EZ
	HIRUGARREN IKASLEA	BAI
		EZ
	LAUGARREN IKASLEA	BAI
		EZ